

Juan Miegen erakusketa Montehermoson

Ekainaren 17tik irailaren 4ra arte egongo da ikusgai, Jovellanos aretoan

Hezkuntza, Kultura eta Kirol zinegotzi ordekarri Estíbaliz Cantok eta Juan Mieg margolariak aurkeztu dute artista gasteiztar horrek Montehermoso kulturuneko Jovellanos aretoan jarri duen erakusketa, zeina ekainaren 17tik irailaren 4ra arte egongo baita ikusgai.

Cantoren hitzetan, Mieg “modernitate piktorikoaren artista adierazgarrienetako bat da”, eta proiektuak “Montehermoso kulturuneak eta Sailak bertako artistekin duen konpromisoa” betetzen du.

2015ean, César San Millán argazkilariaren berariazko proiektu bat hautatu zen erakusteko.

Juan Miegen biografia:

Juan Mieg Gasteizen jaio zen, 1938an. Hamabost urte zuela, Arte eta Lanbide Eskolan matrikulatu zen, eta bertan Miguel Jimeno Martínez de Lahidalga eta Mariano Basterra izan zituen irakasle. Madrilgo akademia partikular batean marrazketa ezagutzak hobetu zituen (1954-1956). Ondoren, Bartzelonara joan zen, Arkitektura ikastera, baina 1962an utzi zituen ikasketak, pinturan aritzeko.

Bartzelonan zegoela informalismoak eta surrealismoak erakarri zuten, eta eragin horiek beti iraun dute haren lanean. Abangoardiarekiko interesak Parisera eramán zuen, eta han abstrakzioa ezagutu zuen.

Gasteizera itzulitakoan, Euskal Eskolaren Mugimenduko Orain taldearen sorreran hartu zuen parte, 1966an, Jesús Echevarría, Joaquín Fraile, Carmelo Ortiz de Elgea eta Alberto Schommerrekin batera; talde horrek eguneratu eta berritu egingo du Arabako arteen panorama.

70eko hamarkadan, Juan Miegek materiarekin esperimentatu zuen, eta nolabaiteko kritika soziala ere islatu nahi izan zuen bere lanetan. Etapa horren ondoren, haren praktika eta estetika piktorikoa aldatu eta pintzelkada sintetikoa eta xehea bihurtzen da, lerro, kolore, zeinu eta orbanek betetako unibertso pertsonala osatuz. Haren koadroetan espazio poetiko eta irudimenezkoa sortzen du, zeinarekin ikusleak komunikatu eta elkarreragiten baitu.

Ibilbide hori dela eta, Juan Mieg Arabako modernitate piktorikoaren artista adierazgarrienetako bat da.

Montehermoso acoge una exposición dedicada a Juan Mieg

Será desde mañana 17 de junio hasta el 4 de septiembre, en la sala Jovellanos

La Concejala delegada de Educación Cultura y Deporte, Estíbaliz Canto, ha presentado hoy junto con el pintor Juan Mieg, la exposición del pintor gasteiztarra que presidirá la sala Jovellanos del Centro Cultural Montehermoso desde mañana 17 de junio hasta el próximo 4 de septiembre.

Canto, ha definido a Mieg como *“uno de los artistas más representativos de la modernidad pictórica”* y destacado que el proyecto se enmarca *“en el compromiso del Centro Cultural Montehermoso y del Departamento con los y las artistas del contexto local”*.

En 2015, la exposición elegida fue un proyecto específico del fotógrafo César San Millán.

Biografía Juan Mieg:

Juan Mieg nace en Vitoria-Gasteiz en 1938 y con quince años se matricula en la Escuela de Artes y Oficios para recibir las enseñanzas de Miguel Jimeno Martínez de Lahidalga y de Mariano Basterra. También perfecciona conocimientos de dibujo en una academia particular de Madrid (1954-1956). Más tarde se traslada a Barcelona donde inicia estudios de Arquitectura, que abandonará en 1962 para dedicarse de lleno a la pintura.

Durante su estancia en la capital catalana se siente atraído por el informalismo y el surrealismo, influencias que siempre estarán presentes en su obra. Este interés por la vanguardia le lleva hasta París donde entra en contacto con la abstracción pictórica.

A su regreso a Vitoria participa, en 1966, en la creación del grupo Orain del Movimiento de la Escuela Vasca junto a Jesús Echevarría, Joaquín Fraile, Carmelo Ortiz de Elgea y Alberto Schommer, grupo que renovará y actualizará el panorama de las artes en Álava.

Durante la década de los 70 Juan Mieg experimenta con la materia en sus obras, en las que también pretende reflejar una cierta crítica social. Tras esta etapa se produce un giro en su práctica y estética pictórica, la pincelada se vuelve sintética y minuciosa conformando un personal universo lleno de líneas, colores, signos y manchas. Proyecta, en sus cuadros, un espacio poético e imaginativo con el que el espectador se comunica e interactúa.

Esta trayectoria ha hecho de Juan Mieg uno de los artistas más representativos de la modernidad pictórica alavesa.